



Musika Eskola ere, 750. urtemuga ospatuz

TOLOSA ▶ Eduardo Mokoroa musika eskolako ikasle guztiek topaketa egingo dute, bihar

EGITARAUA ▶ Eguerdian kalejira eta arratsaldean kontzertu berezia eskainiko dute, Beotibarren ▶ 3

ANOETA ▶

Sinadura bilketa eskola euskalduna aldarri, ▶ 5

OSTATV JATETXEA ITZIAR ETA AMAIA

- Eguneko Menua
- Plater Konbinatuak
- Asteburuko menuak 21-28 €

Erreserba egiteko deitu 11:00etatik 16:00etara

Alkizako plaza • ALKIZA • Tel.: 943 69 18 36



I. GARCIA

Ikastolaren Eguna egingo dute bihar

IRURA ▶ Kultur Astearen baitan, ekitaldiz betetako festa eguna antolatu du bihar Irurako Ikastolak; jendetsua izatea espero dute ▶ 4

TOLOSA ▶

Manta Rey taldearen rock-a, zuzenean

Bonberenean joko dute bihar ▶ 2

LEITZA ▶

Saralegi eta Perurena finalerdiko pasearen bila jaioterrian, etzi

Urrezko Harri-jasotzailea Txapelketan; Otaegi aizkolari zizurkildarra Mutrikun ▶ 7



GAU GIROAN SOINUA JOTZEKO KAMISETA DOAN



Eros ezazu elkar txartelarekin, eta taldearen kamiseta ofiziala eramango duzu doan.

© 2006 Elkar, S.L.

elkar
elkar eragilearen dugalako

MUSIKA ▶

Manta Ray taldearen zuzenekoarekin, rock doinuak Bonberenean

Laukote asturiarrak (Espainia) 'Torres de electricidad' kaleratu berri duen diskoa aurkeztuko du, 22:30ean



Manta Ray taldeak zuzeneko eskainiko du bihar, Bonberenean. HITZA

NOELIA LATABURU

Aurreko asteburuko atsedena ostean, indartsu bueltatuko dira musika hotsak Bonberenean. Izan ere, bihar Manta Ray talde asturiarrak (Espainia) egingo du bisita gura, *Torres de electricidad* haien azken diskoa besapean dutela. Rock berezia egiten du laukoteak, Espainiako indi mugimenduan talde garrantzitsuenetarikoa bilakatu delarik.

Ibilbide luzeko talde aski ezaguna da Manta Ray. Sei disko argitaratu dituzte 1995. urtean hasi zirenez geroztik; *Manta Ray* (1995), *Pequeñas puertas que se abren, pequeñas puertas que se cierran* (1998), *Score* (1999), *Esperanza* (2000), *Estratexa* (2003) eta azken urteko *Torres de electricidad*. Hamar kantuk osatzen dute bilduma, eta Tortoise eta Sonic Youth bezalako taldeen lekukoa hartu dute musika munduan. Beti ere, zuzenekoak ikusi bezalakorik ez dute zale-tuek haien musikaz gozatzeko.

ZESTA-PUNTA ▶



Beotibarreko jokalariek emaitza bikainak lortu dituzte. HITZA

Beotibarreko jokalariek fin, Herri Artekoan

2 eta 1 egin zuten kadeteen eta nagusien garaipenarekin; bigarren dira sailkapenean

N. LATABURU

Iragan igandean Beotibar pilotalekuan Herri Arteko Txapelketaren jardunaldi bat jokatu zen, Zesta-Puntan. Beotibar taldeak Zumaiaiko taldea izan zuen aurkari, eta asko kostatako garaipena lortu zuten tolosarrek.

Kadete mailan, Izagirre-Telleria bikoteari azkeneka zatian erreskadan egindako tantan sorta batek garaipen argia eman zion, eta 30-20 hartu zuten mendean bikote zumaia-rra.

Partida zailagoa zuen jubenil mailako Rezola-Mujika bikoteak. Partida oso aurrera-

tua joan arte, aurretik ziren tolosarrek, baina amaiera alde-rra zumaia-rrak aurrea hartu zieten, eta galtzea egokitu zitzaizen, 31-35 emaitzarekin.

Garaipen eta porrot batekin Orrantia eta Trabazos nagusien mailako esku zegoen bigarren puntua lortzea. «Punta-puntako» taldea omen du Zumaia nagusien mailan, baina tolosarrek ederki baliatu zuten etxean jokatu izana; partida borobila egin zuten. Azkeneko emaitza 35 eta 31koa izan zen.

Jardunaldi honen ondoren, beraz, Tolosako taldea bigarren da sailkapenean. Donostiako taldearen atzetik.

HEZKUNTZA ▶



Softwarea mintzagai, Interneteko egunean

Internetak dagoeneko badu bere eguna. Herengun izan zen, hain zuzen ere, eta Webaliantzak, Software librearen jendarteratzeko xedearrekin, bideo-konferentzia bidez izan zen hitzaldia eskaini zuten Donostiako Zubiri-Manteo Institutututik.

Tolosalko Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuan ikusgai izan zuten aipatu hitzaldia, Luis Martin-Santos Garcia Webaliantzako zuzendari teknikariaren eskutik. Hala, ikasleei *Software Librearen erabilpenari* buruz jardun zuten. HITZA

KM
Kulturunea

Baldia Mitxelena Kulturunea
Lindaketa kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

ERAKUSKETAK

Erakustaretoan
Apirilak 27 - Ekainak 17

Charles Sandison

Charles Sandison
"THE READING ROOM
IRAKURKETA GELA"

Ganbaran
Apirilak 26 - Ekainak 10

Alberto Schommer
METROPOLIS

ERAKUSTETAKA
aurrekoak: 943 11 28 93 / 943 11 28 93
gipuzkoa.igandea
eta jarduera-egunak
BONIA GIBATUARI
Tel.: 943 204 204 Fax: 943 404 900

Gipuzkoako Foru Aldundia
Euzko Legebiltzariaren Foru Bilerak
Euzko Legebiltzariaren Foru Bilerak
Euzko Legebiltzariaren Foru Bilerak

KULTURA ▶

Musika Eskola 750. urtemuga ospatuz

Kontzertu berezi bat eskainiko dute bihar Beotibarren, 19:30etik aurrera



Tolosako Musika Eskolako ikasleak, entsegu batean. HITZA

ESTI EZEIZA

Tolosako Musika Eskolak 750. urteurrena ospatzeko ekintza berezi bat antolatu du: eskolako musikari guztiak protagonista izango dituen musika topaketa, alegia. Bostehun lagun inguru bilduko ditu topaketak eta bihar, larunbata, egun guztian zehar ospatuko da. Egurdiko 12:00etan kalejira hasiko da eta 19:30ean Beotibar frontoian kontzertu berezia egingo dute. Ekintza honen bidez, Musika Eskolak Tolosa herriari omenaldia egin nahi dio bere 750. urteurrenaren.

Kontzertuan, Musika Eskolako zazpi urtetik gorako ikasle guztiak eta Tolosako ikastetxetako abesbatzek hartuko dute parte. Emanaldian abesbatzak, kamarako bandak, dultzainak, peskusioa, soka-instrumentuak eta txistuak entzun ahal izango dira, besteak beste. Tolosako erraldoiak ere ez dira ikuskizunean faltako.

Gainera, partaide guztiak 750. urteurrenako kamiseta jantziko dute, kolore desberdinetan. Kamiseta hauek Tartalo serigrafia eta diseinu zigiluak eginikoak dira eta Tolosaldea Tour (Santa Maria enparantzan) edo Fundazioaren web orrialdean (www.tolosa750.net) eros ditzake interesa duenak.

Kontzertuaren helburua da, 750 urteurrenaren, Udal Musika eskolak Tolosako herriari omenaldi bat eskeintzea, eta horretarako festa polit eta alai bat antolatzea haien lan tresnaren bidez: musika.

Kontzertuan, besteak beste, abesti hauek joko dituzte: F. Beobideren Tolosako himnoa den *la zarrak*; *Haurrak izeneko* haur kanta herrikoa, euskara, pilota, festa... oinarri dituen; *Erraldoien baltsa*; *Anttoni eta Antton* kanta herrikoa, amodiozkoa, gure artean ohikoa; *A los Toros*, Musika Eskolari izena eman dion konposatzailearen pasodoblea, eta herriko festetan jotzen dena, sanjoanetan, zezenetara joateko *paseillo*-an.

La gran Evasion eta *Euskal musikaren gorespina* ere izango dira entzungai. Taldekideten esanetan, «musikaren bidez goresten bada Tolosa, kanta hau baino hoberik ez helburu horretarako». *Erraldoien jota*, «Tolosako erraldoiak politenak direla entzun dugu, eta alderantziz izango da; haiek erraldoiak dantzatu beharrean, haurrek jarriko dituzte erraldoiak dantzan», diote Musika Eskolakoek. Azkenik, *Colonel Boogey* ere joko dute, filmetako musika alaia eta gogorra, festa kutsua duena. *Diana* ere eskainiko dute.

KULTURA ▶



Nora hoa neska! antzezlenero irudi bat. HITZA

Musika eta antzerkia uztartuz, egun berean

'Nora hoa neska!' antzezlana eta Urgabe taldearen musikaz gozatzeko aukera, gaur

E. EZEIZA

Tolosako Udaleko Kultura Sailak antolatuta, *Nora hoa neska!* antzezlana eta Urgabe musika taldearen emanaldia izango dira gaur. Lehenengoa arratsaldeko zortzietan izango da, doan, Kultur Etxean. Eta bigarrena, gaueko hamaiketan, Fronton kafetegian.

Nora hoa neska!, Lierni Fresnedok zuzendutako komedia, egungo emakume askoren egoera adierazi nahi du: Pepa, antzerkiko protagonista, senarrak utzi du hogeit urteko loturaren ondoren. Artean, sinestu ezinik, bere bizia zertan geratuko den kontatuko du. Senarraren gustua egitearren utzi zuen bere lana, eta orain iraganera begiratuz, oharzen da noraino irtsiko zen aktore lanetan jarraitu izan balu. Horrela, dena galduta dagoela dirudienean, bizi pozez eta ilusioz gainezka dagoen Pepa berpiztuko da, eta galdutako denboraren bila hasiko da jo eta su. Antzerkia Edurne Agirrezabala eta Begoña Amonarrirek antzeztzen dute. Itzulpen lana, berriz, Begoña Amonarrirek egin du, eta ekizleak Txirene Antzerkia da. Hala, antzezlenero kideen

esanetan, «Fikzio ttipi honek baldio beza denek barnean duten Pepa hori bila dezaten akuilu gisa!».

Kontzertuari dagokionean, Urgabe taldeak hamar urtetik gora daramatza euskal musikaren munduan. Trikitilari bigote bezala hasi ziren 1995ean, eta orain sei partaidek osatzen dute musika taldea: Agus, hasieratik bertan dagoena, Mikel 2 (gitarra), Jaime (baxua), Pamen (saxoa), Esteban (trumpeta) eta Ahoztar (bateria). Trikiti doinuak eta rock-a uztartzen hasi baziren ere, 2003an, taldea erabat aldatuz eta bide berriak probatuz, saxoa eta trumpeta gehitu zituzten. Horrela, betiko doinuez gain, ska doinuak ere jorratzen hasi ziren. 2004. urtean, Durangoko Azokari begira, hirugarren diskoa kaleratu zuten, Donostiako Elkar estudioan grabatuta, *Edan hemendik* izenburupean. 11 kantu biltzen ditu, eta kolaborazioen artean Alex (Exkixu-Gatibu), Juan Mari Beltran eta Mauriziaren ahotsak, eta Leon-en alboka sartu dituzte.

KZ GUNEA ▶

Ireki da ekaineko ikastaroetako izen-ematea

Datorren ekaineko ikastaroetan izena emateko epea irekita dago. Jardunaldiak orain arte bezala hogeit ordukoak izango dira. Bi kurtso ezberdin egongo dira: lehenengoa ekainaren 5etik 16ra izango da, goizeko saioak 09:00etatik 11:00etara izango dira, eta arratsaldekoak 16:00etatik 18:00etara. Bigarren jardunaldiak ekainaren 19tik 30era bitartean izango dira, 11:00etatik 13:00etara. Interesatuek deitu 943 65 37 20 ra edo joan KZgunera.

HEZKUNTZA ▶

Ekintzailearen eguna, gaur, irakaskuntzan

Gipuzkoa Ekintzailea estrategiaren barruan, Foru Aldundiak bultzatuta, lehenengo aldiz, Ekintzailearen Eguna egingo dute gaur. Izan ere, Europako Batzordetik eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoa 2020 gogoeta estrategikotik, enpresa sortzailearen ezaugarriak bultzatu nahi dituzte. Hori dela eta, gaur, Laskorain ikastolan eta Tolosaldea LHIn hainbat ekintza egingo dituzte.

KULTURA ▶

Orfeoiko gazte abesbatzaren azterketa

Gaur, 18:30ean, Tolosako Orfeoik eta ESME Junior Enpresak elkarlanean egin duten azterketaren berri eman go dute. Azterketa hau Orfeoikaren Gazte Abesbatzaren inguruan egindako ikerketetan datza. Agerraldia Tolosako Orfeoik Abastos plazan duen instalakuntzan egingo da.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Pisua. Leitzan 100 m²-ko pisua salgai, igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. Interesatuek deitu 699 46 13 65 telefonora.
Autoa. Renault Kangoo RXE DTI salgai. 2000. urtekoa, 88.000 kilometroekin eta estrak ere baditu. Interesatuek deitu 943 69 71 94 telefonora.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Irakurleen iritzia. Sartu eskualdeko egunkariaren web orrian, bertan aukera ematen baitizugu publikatzen diren albisteenguruz zure iritzia emateko.

ZABALA DESGUAZEA

Beotibar Industria Gunea, 18 BELAUNTZA

Tel./Faxa: 943 67 17 90
696 593 347



IRURA ▶ KULTUR ASTEA

Ikastolaren Eguna egingo dute bihar

Kultur Astearen baitan antolatu dute eta jende asko izango da ekitaldietan

IMANOL GARCIA

Irurako Kultur Astearen baitan, Ikastolaren Eguna egingo dute bihar. Egun berezia izango da eta jendetsua, 200 lagunetik gora, haur zein helduek, izena eman baitute bazkaria egiteko. Aurretik Anoetako Ikastolarekin batera antolatzen zuten eguna. Hau, beraz, lehenengoa izango da Irurakoek beraiek bakarrik egingo dutena. «Ikastola hazi egin da eta erabaki dugu Iruran egitea», dio Josune Aiestaran zuzendariak. «Eta Kultur Astearen baitan txertatzea egokia ikusi dugu».

Egun 105 ikasle daude Irurako Ikastolan, bi urteetatik hasi eta Lehen Hezkuntzako 4. maila arte. Datorren ikasturtean LH 5 maila ere izango dute eta

hemendik bi ikasturtera LH 6 maila. Horrela, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza guztia eskaintzeko aukera izango du Irurako Ikastolak.

Proiektu handi bat du eskuartean, gainera. Frontoiaren atzealdean, eraikin berria egiteko lanak hasi baitira. «Lurrak mugitu dituzte eta laster hasiko dira obrak egiten», azaldu du Aiestaranek. Esfortzu handia eskatuko du proiektu horrek. Horri aurre egiteko azken urteotan herriak antolatzen duen Garagardo Azoka ekarri du gogora zuzendariak: «Ekainaren 30ean eta uztailearen 1ean eta 2an egingo dugu. Orduan lana egitea tokatuko zaigu. Bien bitartean, larunbatean ondo pasatzeko aukera dugu». Kalejira, jolasak, ikasleen emanal-



Irurako Ikastolako zenbait ikasle bihar egitekoak diren emanaldia prestatzen, atzo goizean. I. GARCIA

diak, bazkaria eta erromeria izango dituzte, besteak beste. Guztia antolatzeko Udalak emandako laguntza eskertu dute Ikastolakoek.

Beste ekitaldiak

Kultur Astearen baitan, atzo jubilatuak izan ziren protagonista eta gaur ere ekitaldi asko izango dira: xare eta pala partidak, Mus Txapelketa, afari herrikoia eta erromeria. Bihar, Ikastola Egunaz gain, gauean *Erreleboa* antzezlanak ikusteko aukera izango dute Trinketera joaten direnek.

EGITARAUA ▶

GAUR

18:00. Xare eta Pala Txapelketako finalak Trinketean.

20:00. Taberna eta elkarteen arteko Mus Txapelketaren finalerdiak Zaharretxe tabernan.

21:00. Afari herrikoia Zaharretxe tabernan.

22:30. Taberna eta elkarteen arteko Mus Txapelketaren finala eta sari banaketa.

22:30. Erromeria plazan Irrintzi taldearen eskutik.

BIHAR

11:00. Ikastolako kideen (ikasle, guraso eta irakasle) kalejira herrian zehar.

12:00. Ikasleen emanaldia plazan (haurrak).

12:30. Haur eta helduen arteko jolasak.

14:00. Bazkaria plazan.

17:00. Ikasleen emanaldia plazan (gazteboak).

17:30. Erromeria plazan Irrintzi taldearen eskutik.

22:30. *Erreleboa* antzerki emanaldia Trinketean.



ZIZURKIL-VILLABONA ▶ HALTEROFILIA

Emaitza oso onak Danena-Olaederrako pultsulariek

Espainiako Junior Txapelketan eta Gipuzkoako Txapelketan lehiatu dira, besteak beste

ERREDAKZIOA

Danena-Olaederrako pultsulariek emaitza oso onak lortu dituzte parte hartu duten azken txapelketetan. Espainiako Junior Txapelketan, esaterako, sei pultsulariek hartu zuten parte. 62 kiloko mailan Ekaitz Kortajarena 2. postua lortu zuen (zilarrezko hiru domina eskuratuz: arrankada, bi denboratan eta total olinpikoan) eta Igor Sasiainek 6. postua. 69 kilotoan Angel Martin 9.a izan zen. 77 kilotoan Jon Ander Iriarte 4. eta Mikel Quintana 5. Azkenik, 85 kilotoan Teddy Martinezek 2. postua lortu zuen (arrankadan zilarrea, total olinpikoan zilarra eta bi denboratan urrea).

Bestalde, Ekaitz Kortajarenak parte hartu zuen Espainiako selekzioarekin Iberoameri-

kako eta Panamerikako Txapelketan. 7. postua lortuz. Txapelketa honen maila oso altua izan zen, pultsulariek lortu zituzten markak oso altuak izan baitziren.

Gipuzkoako Txapelketan parte hartu dute ere hainbat pultsularik lehenengo postuak lortuz: 56 kilotoan, 1. postua Iker Hernandez; 62 kilotoan, 1. Igor Sasiain; 69 kilotoan, 1. Ekaitz Kortajarena; 2. Aritz Salaberria; 77 kilotoan, 1. Jon Ander Iriarte, 4. Mikel Quintana eta 5. Angel Martin; 85 kilotoan, 4. Julen Intxausti; 94 kilotoan, 1. Daniel Legorburu eta 2. Jokin Urkizu; 105 kilotoan, 1. Jon Teceador. Sailkapen orokorrean: 1. Ekaitz Kortajarena eta 2. Jon Teceador. Nesken banakako sailkapenean zein orokorrean Lourdes Gorostegik lortu zuen lehenengo postua.

Villabona - Kultura

ANTZERKIA

Agente Teatroa

"Neska politikak, artasoro alaiak"

Maiatzak 19 Ostirala

GAUEKO 22:30ean • GUREA ARETOAN

Udal Kultura Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)

IBARRA ▶

Pirritx eta Porrotx gaur Belabieta kiroldegian

Galtzaundi Euskara Taldeak Pirritx eta Porrotx pailazoan *Maite zaitut* ikuskizuna antolatuta du gaur, 17:30ean, Belabieta kiroldegian. Sarrerak Galtzaundiren egoitzan (Tolosa, Nafarroa etorbidea, 6) eta Ibarroko Zubiaurre tabernan daude salgai, 5 eurotan.

ELDUAIN ▶

San Isidro Egunaren harira, hainbat ekitaldi

San Isidro Egunaren harira hainbat ekitaldi antolatuta dituzte asteburuan. Gaur, 22:00etan, *Aupa Etxebeste* filma ikusteko aukera izango da, eta bihar, berriz, Elduaingo Parrokiak antolatuta, 12:30ean Meza Nagusia izango da Santa katalina elizan, eta 14:00etan, bazkaria Urdelar Biltokian.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroško dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutz Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ SEGA

IÑIGO TERRADILLOS

Almitza sega elkarteak antolatuta, sega ikuskizun berezia, «Euskal Herrian egiten den estreinako» izango da Tolosako Iurreamendiko zelaietan, etzi, 11:30etik aurrera. Ohiko Lehiaketetan ez bezala, sega munduan eskarmentua dutenez gain kirol honetan estreinakoz ariko direnak lehiaketa ikusteko aukera izango da. Sega oinarritzat hartuko duen festa herrikoia izatea nahi dute Almitza elkarteok, eta helburu nagusia segarako zaletasuna sustatzea izango da.

Euskal Herriko nahiz Kataluniako 29 laukotek eman dute izena lehiaketan. Horietatik, 2 talde dira emakumezkoenak eta gainerakoak gizonezkoenak. Eskualdean, esaterako, 9 talde osatu dituzte eta horietan Erasun eta Gabirondo bezalako segalari ezagunak topatu daitezke. Kike Amonarriz aurkezle dela eta Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagarikano animatzaile lanetan direla, 11:30ean ekingo diote Lehiaketari, baina lehenago, 11:00etan, egingo dute zozketa. Hala, egin beharko duten lana emakumezkoen kasuan 120 m2 ebakitzea eta gizonezkoen kasuan 200 m2 ebakitzea izango da. Lan hori azkarren eta txukunen egiten duenak irabaziko du. Proba amaitu ostean, «gorputzak indarberritzeko eta jai giroak jarrai dezan», partehartzaileak Usabal sagardotegian egingo den bazkarira bilduko dira trikitilariekin eta bertsolariekin. Bazkarirako txartelak 615 74 34 11 zenbakira hots eginez edo zelaian egunean bertan eskuratu ahal izango dira.

Tolosakoa, lehendabizikoa

Europar barrena egin dituzten bidaetatik sortu zaie horrelako lehiaketa bat antolatzearen ideia; izan ere, harridura sortu die Almitza elkarteokoi hainbat herrialdetan segaren inguruan sortzen den mugimenduak, «lehiaketa baten harian bizpahiru eguneko festa erraldoiak antolatzen baitira». Halaber, antolatzen dituen eta parte hartu izan duten ekitaldi guztietan Euskal Herriaren herri izaera ezagutarazi nahi izan dute, eta sega taldeaz gain, dantzari, trikitilari, txistulari, dultzainari, txalapartari, harrijasotzaile, aizkolari eta trontzulari... eta beste askoren eskuhartzea ziurtatu du.

Hala, atzerrian ikusi eta ikasitakoak Euskal Herrira ekarri eta bertan praktikan jartzeko erronka berria hartu dute, eta Tolosakoa izango da lehendabizikoa saikera.

I. Taldekako Sega Lehiaketa Herrikoia egingo dute etzi

Almitza sega elkarteak antolatuta, Iurreamendiko zelaietan izango da, 11:30ean; 29 laukotek hartuko dute parte



Ikaztegiatarrek eta legorretarrek osaturiko Elkarre taldea izango da 29 laukoteetako bat. HITZA

I. TALDEKAKO SEGA LEHIAKETA HERRIKOIA ▶ 29 PARTAIDEAK

EMAKUMEAK

Crema Catalana (Girona).

Pilar Farres, Pilar Espunya, Magda Roca eta Climent Casals. Miquel Costa zorroztailea.

Nahiko Ian (Zaldibia).

Ainhua Agirre, Larraitz Garmendia, Añña Jauregi eta Maite Irazustabarrena.

GIZONAK

Bertsolari elkarte.

Millan Telleria, Larrañaiga (beste bi zehaztu gabe).

Bertsolariak Goierri.

Iker Zubeldia, Mikel Mendizabal, Iban Urdangarin eta Bixente Gorostidi.

Errezil. Jexux Mari Goenaga, Aitor Agirretxe, Arkaitz Agirretxe (zehaztu gabe).

Baliarrain. Jokin Garmendia, Iker Garmendia, Julian Bereziartua eta Arkaitz Artea.

Amasa. Andoni Zuriarrain, Gari Etxeberria, Jokin Etxeberria eta Mikel Arretxe *Xandra*.

Peluaga (Oartzun). Julian Mitxelena, Jose Kruz Mitxelena, Miel Mari Mitxelena eta Bixente Mitxelena.

Tolosaldea. Garikoitz Llobregat, Jon Gofía, Garmendia eta Andoni Altzate.

Elkarre (Legorreta). Andoni Dorronsoro, Jesus Mari Lasa, Igor Esnaola eta Arrate Garin.

Gaztelu Gorri (Gaztelu). Matxiandiarena, Juanjo Otegi, Andres Etxeberria eta Andoni Goikoetxea.

Gaztelu Berde (Gaztelu). J. A. Gabirondo, Martin Etxeberria, Joxe Gabirondo eta Patxi Mujika.

Otola (Gaztelu). Mikel Aranalde, Antonio Zabala, Jokin Otegi eta Luix Mari Otegi.

Arrubi (Zaldibia). Xabier Mendizabal *Arru*, Iñaki *Blanda*, *Altzo Txiki* eta Miel Mari Jauregi *Altzo*.

Zaldibia. Arkaitz Jauregi, Urko Galarraga, Harri Urdangarin eta Jokin Mujika.

Trikitixa elkarte. Andoni Larrañaiga, Jose Antonio Irastorza, Antton Sarobe eta Jose Inazio Alustiza. Eugenio Gisasola zorroztailea.

Escudella (Girona). Esteve Costa, Jordi Feixas, Jordi Alsina eta Josep Roca. Josep Torrent zorroztailea.

Carn D'Olla (Girona). Miquel Costa, Miquel Vila, Josep Torrent eta Modest Plana.

Asteasuarrak. Juan Jose Irazusta, Juan Jose Lizaso, Joseba Arrospe eta Aitor

Alkain. Isidro Tapia zorroztailea.

Aiara (Aiara baiara). Kepa Albizua, Gorka Guaresti, *Jupi* Zubiaga eta Unai.

Aia. Andoni Rezabal, Jon Mujika, Xabier Aierdi eta Jon Olaso.

Bertsolarien lagunak elkarte (Lapurdi). Jean Mixen Mondela, Kote Agerre, Kepa Murua eta Jexux Murua.

Antonio Rezabal zorroztailea. **Iturrai (Belauntza).** Iñaki Arregi, Joseba Arregi, Jose Mari Arregi eta Andoni Egia.

Undurraga (Zeanuri). German Egiluz, Migel Angel Goioaga, Jon Lapazarán eta Oier Arana.

Uribe (Zeanuri). Jaime Atxa, Pabi Astondoa, Arkaitz Arana eta Javi Olivares.

Anoeta. Egoitz Luisa, Oier Urkola, Igor Urkola eta Txomin Garmendia.

Erasundarrak (Aia). Juan Manuel Erasun, Martin Erasun, Daniel Erasun eta Manuel Zendoia.

Izetatarrak (Aia). Izetarren sendia.

Goierrialdea (Beasain-Lazkao). Ikutz Garmendia, Juan Mari Arrizabala, Kepa eta Iñaki Azurmendi.

LEITZA ▶ HERRI KIROLAK

Saralegi eta Perurena finalerdiko pasearen bila herrian bertan

Mindegia eta Nazabalen arteko finalerdia ere jaialdi berean ikusgai; Otaegik, berriz, Mutrikun du postua erabakitzeakoa

JAIONE ASTIBIA

Leitzan herri kirol jaialdi ikusgarria egitekoak dira, igandean, Amazabal pilotalekuan, 12:30etik aurrera: bikote gisa aurreneko aldiz txapelketa honetan dabilten herriko bi harri-jasotzaileek, Mikel Saralegi eta Iñaki Perurenak, Urrezko Harri-jasotzailea Txapelketako finalerdietarako txartela dute jokoan. Aimar Irigoien eta Hodei Izeta, Izeta IV.aren, jokatu dute norgehiagoka eta talka honetako bikote irabazlea izanen da, hain zuen ere, hurrengo fase horretan falta den laugarren bikotea.

Asko dago jokoan, beraz, igandeko saio horretan. Dagoeneko sailkatuta dauden Goenatxo II.a-Izeta III.a, Ostolaza-Barinaga eta Landarbide-Izeta II.a bikoak zain dituzte. Antolakuntzak jakinarazitakoaren aitoria, aurreneko bi bikoek jokatu omen dute finalerdia; bigarreneko, Landarbide eta Izeta II.aren aurkaria, etzi erabakiko da, Leitzako saioan.

Osagai askotako lehia

Hori lortuko du kilo gehien altxatuko dituen bikoak. Bina minutuko saioak egingen dituzte harri bakoitzarekin: 100 kiloko zilindroarekin, alde banetatik, Perurena eta Izeta IV.a lehiatuko dira; 200 kiloko errektangularrarekin, berriz, Saralegi eta Irigoien. Gero, txanda libreko bi saio egin beharko dituzte: 113 kiloko kubikoarekin eta 100 kiloko bolarekin.



Idiazabaleko saioko irudia. K. A.

Jokoan dagoena egoteaz gain eta herriko bi harri-jasotzaileak batera ikustea ere erakargarria bada, «zaharren eta gazteen arteko lehia ere ikusi ahal da, alde batetik, eta baita nafar eta gipuzkoarren artekoa ere. Osagai askotako ikuskizuna izanen da», zioten adituek. Harri-jasotzaileen arteko neurketa erabakiorraz gain, Urrezko Aizkolaria Txapelketak ere hortxe eskainiko du lehendabiziko finalurrekoa, Nazabal eta Mindegiaren artekoa, hain zuzen ere. Hemen erabakiko da finaleko lehen izena.

6 lan mota aizkoran ere

Horretarako, finalurreko bi saioetarako prestatu dituzten sei lan mota zeinek azkarren egin beharko dituzte: 45 ontzako ahalik eta kolperik gutxienean ebakitzea; kana-erdiko zutik; kana-erdikoa etzanda; 45

ontzako bi enbor, bat zutik eta bestea etzanda; 60 ontzako; bi 45 ontzako, bi kana-erdiko eta bi 60 ontzako.

Bi txapelketetako saioak txandakatuz, kirol ikuskizun bizi-bizia izanen dela iragarri dute, bai arintasunagatik, eta noski, eta batez ere, lehiakortasunari zor, zirt edo zart egiteko tenorean izanen direlako bai harri-jasotzaileak eta bai aizkolaria ere.

Gazteak Mutrikun

Sailkatuta badago ere, lehendabiziko edo bigarren postuan egingen duen erabakitzeakoa duena, Joseba Otaegi zizurkildarra da. Urrezko Aizkolaria Txapelketako 23 urtez azpiko txapelketan, horixe erabakiko dute, Mutrikun, Olatz auzoan, igandean berean eta 13:00etan hasita, egitekoa dute jaialdian, besteak beste. Otaegiren eta Mugertza II.aren arteko lehiak erabakiko du hori.

Eta jaialdi berean neurtuko dute elkar txapelketa horretako beste taldeko bi aizkolarik ere: X. Mindegia eta Atutxa II.aren arteko norgehiagoka jokatu da; ligaxkako azkena talde horretan eta Jon Rekondo leitzarrarekin batera, hiru hauetatik, bi sailkatuen izenak erabakiko dituen: lehia horretan zer gertatzen den, Jon Rekondo leitzarraren sailkapena jokoan dago.

Nahiz harri-jasotzailetan, nahiz aizkoran, Urrezko mailetan, nahiz gazteenean, hitz handitako urratsak jokoan, beraz,

KULTURA ▶

Eskualdeko trikitilariak Trikiti Eguna

Lekunberrin egingen dute aurten, Nafarroako Trikititza Eguna, igandean. Eta bertan izanen dira Nafarroa osotik joandako 300 trikitilari, guztiak herrialdeko hainbat musika eskoletako ikasleak, eta tartean izanen dira Aralar musika eskolakoak ere, honenbestez baita «Leitzatik joanen diren 6-8 trikitilari ere», hala jakinarazi dute eskoletatik bertatik. Trikiti hotsak nagusituko dira, beraz, Larraun aldean, etzi. Izan ere, 10:00etatik eguerdira arte, bailarako 16 herrietan taldeka ibiliko diara bazterrak alaituz, gero Lekunberrira itzulitakoan, 300ak elkarrekin kalejira egiteko. «Eskandalu pixka bat eraginen dugu behintzat», zioten umorez arduradunek. Bazkariaren ondoren eskola bakoitzak kontzertua eskainiko omen du bertako pilota lekuan eta jaialdia, J&K taldearen erromeriarekin bukatuko dutelarik.

LEITZA ▶

Eskolako futbol txapelketak 3. jarduna

Bihar etzitan, eskolako harrizko zelaian futbol partiduak ikusteko aukera izanen dute zaletuek, herriko koardilen artekoak. 3. jardunaldia dute eta bihar 14:00etan hasi eta ordubeteko iraupena duten 5 partidu jokatu dituzte: Mestru/Kakitzat; Steawa/Drink Tim; Urepele/Baxerri; Komando/Floreszent eta Feniks/Txotx. Etzi partidu bakarria izanen da, 12:00etan hasita, Belarriko/Zelai taldeen artekoa. Metazirik eta Betimezkorrek atsedena dute.



lazio partidu batean. J. ASTIBIA

ELIZA ▶

Mikel Donearen irudia bihar eta etzi ekarriko dute

Asteburu honetan Leitzan nahiz Areson Aralarako Mikel Donea santuaren irudiaren bisita izanen dute, jada hasia baitute herriz herriko ibilaldia. Hala, bihar arratsaldean bertan egingen du sarrera Leitzan: 19:00etan ailegatuko da herrira eta prozesioa egingez joanen dira elizara. Biharamonean, 08:30eko mezan agurra egin eta Aresora bideratuko da. Han, 10:15ean egingen diote ongietorria, herriaren sarreran, eta ohiko moduan, prozesioa egingez ere, elizaratu. Gaixoei etxera joanen zaizkie, aurretik.

LEITZA ▶

Plazako pilota txapelketako lehen saioa bihar

Bihar ekinen diote Plazako XIV. Pilota Txapelketari parte hartuko duten 12 bikoteek. Hiru taldetan banatuta, taldeen barreneko ligaxkarekin hasiko dira. Partiduak 16:00etan hastekoak dira, ondorengo bikoteen artean: A taldean, Bengoetxea-Gartzia/Tximista-Bordazpi eta Sagastibeltza-Arburua / Zeballos-Iriarte; B taldean, Aldaia-Olano / Zubillagatarrak eta Lazkano-Alduntzin / Anduezatarrak; D taldean, Lazkano-Buldain / Makatzagatarrak eta Alduntzin-Sagastibeltza / Telletxea-Zabaleta.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko maiatzaren 19a, ostirala ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



15

hotzena

13

BIHARKO EGURALDIA



943 30 43 46

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeako, harpidetan egiteko...)

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurilaritza, Kultura Saila

Elkarrekin



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Irura. Kultur Astea. 18:00etan, Xare eta Pala Txapelketako finalak; 21:00etan, afari herrikoia; 22:30ean, taberna eta elkarten arteko Mus Txapelketaren finalak eta sari banaketa; ordu berean, Irrintzi taldearen erromeria. **Ibarra.** Pirritx eta Porrotx pailazoan *Maite zaitut!*. 17:30ean, Belabietan. **Villabona.** *Puño, letra eta zingotzi maltzurra* txobxongilo emanaldia haur eta helduentzat. 19:30ean, Gaztetxean.

ERAKUSKETAK

Gaztelu. Edorta Muruaren antzinako euskal jantziei buruzko erakusketa. Hilaren bukaera arte ikusgai, Ostatuan. **Tolosa.** Iñaki Olazabalen eskulturak. Hilaren 27ra arte, Aranburu Jauregian. **Tolosa.** Mari Carmen Ortegaren pintura lanak, Lanbroa tabernan. **Tolosa.** Jesus Lopez Zuluetaaren koadroak. Hilaren amaiera arte, Saikinen.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, 1. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa:* eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN errepasoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 21:00-22:00. *Zaharrek Berri.*
 22:00-23:00. *Arkako show.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Irati.
 Zorionak.
 Segi horrela.



URTE ASKOAN
 Alaitz Zabala.
 Gaur 3 urte.
 Zorionak guztion partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tartea

berria rekin

"50 IBILALDI ERRAZ, HAURREKIN EGITEKO MODUKOAK" LIBURUA



+ KUKUXUMUSUK diseinatutako kantinplora bat **OPARI!**

Laguntzaileak:



ingurumena
 Lurra eta Airegaren



Larunbat honetan **maiatzak 20**, kupointzako **kartilla BERRIA**rekin

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

Jesusen Bihotza ikastolaren 40. urtemugako ospakizunak

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ Jesusen Bihotza ikastolak 40 urte beteko ditu aurten —goitik behera, 1968ko (bi irudi), 1969ko eta 1970ko argazkiak—, eta hainbat ekintza antolatu ditu hitzordu berezia ospatzeko. Hilaren 26an, esaterako, omenaldia izango da, 18:30ean. Egun berean, baina 20:30ean, helduak (guraso, irakasle eta ikasle ohi) afarian elkartuko dira. Aburuzan. Eta hurrengo egunean, hilaren 27an, Iker Goenaga zizurkildarrak kontzertua eskainiko du, 22:00etan. Olaederra kiroldegian. Afarirako zein kontzerturako txartelak salgai jarri dituzte jada ikastolako hiru eraikinetan, eta Shepherd's garagardotegian, Xikerren eta Egarrin. HITZA

MAIATZAK 21, OIARTZUN: MENDI MARTXAK

KIROL FROGAK (Xiba: Gipuzkoako Kanporaketak), ANTIZINAKO JOLASAK ETA HERRI BAZKARIA Beheko plazan eta Madalensoren



HAURTZARO IKASTOLA

